

PRENTSA AGIRIA

2023ko BAIONAKO BESTETAKO AFITXA Bozken aldia! 2023ko otsailaren 10, igandetik, 26, igandera



Vincent Bergue (grafista), Audrey Birles (grafista eta irudigilea), Ophélie Dhayere (irudigilea), Régis La Joie (Nitch izengoitiko irudigilea) eta Mikel Urmeneta (artista) egileen sorkuntza grafikoak otsailaren 10 honetan, ostiralarekin Baionako euskal museoan aurkeztuak izanen zaizkio prentsari. Jatorrizko sorkuntza hauek, Hiriak eta Bestetako kontseiluz kanpoko batzordeak antolatu afitxa lehiaketaren karietara burutuak, linean edo Turismo bulegoan eta Euskal museoan aurkezturik ikus ditzakezue. 2023ko otsailaren 10ean, ostiraleko eguerditik goiti du publikoak bakarrik bozkatzen ahalko.

Heldu diren Bestetarako afitxa bakar bat atxikitzea eskatzen zaio publikoari. Aurten, linean baizik ez du bozkatzen ahalko **fetes.bayonne.fr**, jarduera horri eskaini gunean, otsailaren 10a, ostirala eguerditik aitzina. Euskaldunen plazako Turismo Bulegoan, biharamunean, 2023ko otsailaren 11n, larunbatarekin eta 26a arte erakusgai ezarriak izanen dira (asteleheneetik larunbatera, 9:30etatik 13:00etara eta 14:00etatik 17:30etara irekirik). Euskal Museoko Argialdean ikusgai izanen dira ere bisitariarentzat bakarrik, eta ostegun arratsetan (museoko ostegunen karietara) beste guzientzat.

Beste berrikuntza, publikoaren bozek osatuko dute bukaerako emaitzen % 60, gaineratiko % 40 kontseiluz kanpoko batzordeari eskainia zaiolarik.

Afitxa lehiaketako irabazlearen izena 2023ko martxoaren 3an agertua izanen da, Jean-René Etchegaray, Baionako auzapezak eskaini prentsurreko baten kariatara. Berehala, bayonne.fr eta fetes.bayonne.fr gunetan, bai eta Hiriko sare sozialetan hedatua izanen da.

Lehiaketa honi lotu prozedura osoa, urte guzietz bezala, uxier baten gidaritzapean burutzen da. 4 000 € ZGB eskainia izanen zaio irabazleari; 500 € ZGB emanen zaie beste lau sortzaileei.

2023an lehiatzen diren 5 hautagaiak

Vincent Bergue, Baionako Bestetako afitxa lehiaketarako bost hautagaietako da. Tokiko komunikazio agentzia batean sartu da grafista bezala, Bordeleko Arte aplikatuetako Institutuko diploma lortu ondotik. Bestetako historiako partaide izatea ohore handi bat litzateke honentzat. Nahi izan du partekatze, elkartze, berdintasun eta bateratze unea oroitarazi bere proposamenaren bitartez.

Audrey Birles Baionarra da jatorriz eta bestalier betidanik. Hemen oso ezaguna da irudigile hau « nana », akats asumituz beterik eta lehengo aireko dotoreziaz beteriko emazte moderno, zuzen hauen marrazkiei esker. Saez-en « borobil » izpiritutik datorren bere afitxa egitasmoaren bitartez, Baionako Besten ikurra diren bandak eta musika bizia balioan ezarri nahi izan ditu Audrey Birlesek.

Ophélie Dhayere Angelun bizi da. 36 urtetan, bere obrak erregulariki bakarka edo molde kolektiboan erakusgai jartzen ditu, bere irudigile freelance jarduera nagusiaz gain. Bere arkatzarekin, hainbat egitasmo burutzen ditu marka batzuentzat baina baita aldizkari edota liburuen azaletarako. Iraganean jadanik bere egitasmoak aurkeztu izan ditu Bestetako afitxa lehiaketetan eta okre, urre kolore eta berde gibelalde batean zuri eta gorri jantzitako hiru dantzari irudikatzen dituen Gabriel Roby-ren "Bolantak" margolanen aurkitzen da bere 2023ko proposamenaren iturria.

Nitch izengoitiarekin Britainian kokatua den **Régis La Joie** irudigile profesionalak lehen aldiko parte hartzen du Baionako Bestetako afitxa lehiaketan. 1998an, errugbiari esker ezagutu duen Benoît bere adiskidearen Bestetako afitxa bildumak mirestu duela dio. Azken honek bere eskualdea, bere hiria eta bere Bestak ezagutarazi dizkio. Zati handi batean honentzat eta haien adiskidetasuna omentzeko du bere hautagaitza 2023ko Baionako Bestetako sorkuntza lehiaketan aurkeztu. Haren proposamena, irekitze ekitaldiari eskaini nahi izan dio, Léon Erregearekin balkoian, lepoko gorri saldo handi baten aitzinean, zinezko elkartasunean.

Mikel Urmeneta Nafarroan bizi da, Iruñean hain zuzen ere. Artista ezagutua da, San Ferminetan arrunt aditua eta Kukuxumusu, Sanferfood eta Katuki Saguyaki marken sortzaile, zuzendari artistiko eta arima da. Afitxa sortzaile gisa, bi aldiz irabazi du San Ferminetako besten afitxa lehiaketa Mikelek eta ehunka afitxa burutu ditu mundu osoko besta batzuentzako, halanola Madreileko saloia eta San Isidroko bestak edo Munduko errepideko txirrindularitza txapelketa. Euskal Herritar Unibertsala izendatu du eusko Jaurlaritzak 2009an, eta Forbes aldizkariak munduko sormen handieneko 100 pertsonen artean sailkatu du 2017an. Erdi iguzki eta erdi gau irudikatzen duen honen egitasmoa bere industri markaren izpiritu barnean deklinatzen du.

Baiona Hiriko prentsa harremanak - 05 59 46 63 01 - presse@bayonne.fr